

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUEN PREBENTZIOA INDUSTRIA GRAFIKOAN (zeharkakoa)	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0509		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Inprimaketa digitala	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Arte grafikoetako prozesuak	Iraupena	100
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Arte grafikoetako faseak eta prozesuak (zeharkakoa)	Iraupena	40
	Kalitatea prozesu grafikoetan (zeharkakoa)		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0200_2 PROZESU GRAFIKOAN, SEGURTASUN-, KALITATE- ETA PRODUKTIBITATE-BALDINTZETAN JARDUTEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB3 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Instalazioen eta banakako eta taldeko babes-ekipoen prebentzio- eta segurtasun-neurriak aztertzea, sektoreko enpresen segurtasun-planetan daudenak.
- EI1.1 Instalazioak eta ekipoak manipulatzeko eragin ditzakeen arriskuekin lotutako prebentzio- eta segurtasun-arauak zehaztea.
 - EI1.2 Arrisku-faktoreak eta arriskuak identifikatu eta ebaluatzea.
 - EI1.3 Produktu kutsatzaileekin egiten diren jardueretarako ingurumen-babesezko eskakizunak identifikatzea.
 - EI1.4 Lan-eremuen eskakizunak eta haiek prestatzeko prozedurak deskribatzea, eta laneko arrisku espezifikoak eta haiek zuzentzeko neurriak zehaztea.
 - EI1.5 Gerta litezkeen istripuetarako lehen sorospenen eskakizunak aztertzea.
 - EI1.6 Langileek eta enpresak prebentzio- eta segurtasun-arloan dituzten eskubide eta betebeharrak definitzea.
- A2: Segurtasun-plana aplikatzea, eta, horretarako, industria grafikoaren prebentzio- eta segurtasun-neurriak eta ingurumena babestekoak aztertzea.
- EI2.1 Detektatzen diren arriskuen aurrean prebentzio-neurriak eta neurri zuzentzaileak aplikatzea, barne harturik norbera babesteko ekipoak eta babes kolektibokoak hautatzea, egoera onean izatea eta behar bezala erabiltzea.
 - EI2.2 Jarduera-protokoloak aplikatzea gerta litezkeen larrialdietan, kasurako:
 - Zeregin espezifikoek arduratu behar duten pertsonak identifikatzea.
 - Detektatutako disfuntzio eta gertaera arriskutsuen berri ematea.
 - Larrialdietan eraikinak ebakutzatzea, ezarritako prozedurei jarraitzea.
 - EI2.3 Gerta litezkeen istripuetan, oinarritzako osasun-neurriak eta lehen laguntzako teknikak aplikatzea eta istriputuak eramatea.
- A3: Industria grafikoek ingurumenarentzat dituzten arrisku nagusiak identifikatzea.
- EI3.1 Hondakinak sortzen dituzten edo ingurumenarentzat arriskuak eta gorabeherak izan ditzaketen arte grafikoetako prozesuak deskribatzea.
 - EI3.2 Hondakin nagusiak eta haien tratamendua identifikatzea, ingurumen-inpaktua saihesteko.
 - EI3.3 Prozesuetan, kontsumoetan eta baliabideetan, ingurumeneko jardunbide egokiak aplikatzea.

Edukiak

1. Laneko segurtasunaren eta osasunaren oinarritzako kontzeptuak
 - o Lana eta osasuna.
 - o Lanbide-arriskuak.
 - o Arrisku-faktoreak.
 - o Lanetik eratorritako ondorioak eta kalteak.
 - o Lan-istripua.
 - o Gaixotasun profesionala.
 - o Lanetik eratorritako beste patologia batzuk.
 - o Ondorio ekonomikoak eta funtzionamendukoak.

- Laneko arriskuen prebentzioaren arloko oinarritzko arau-esparrua.
- Laneko segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten erakunde publikoak.

2. Arrisku orokorrak, haien prebentzioa eta larrialdi- eta ebakuazio-ekintzak

- Tresna eta ekipoak erabiltzeak dituen arriskuak.
- Sistema eta instalazioak manipulatzeko dituen arriskuak.
- Kargen garraioak eta biltegiak dituzten arriskuak.
- Lan-inguruneari lotutako arriskuak.
- Lan-kargatik eratorritako arriskuak.
- Langileen segurtasunaren eta osasunaren babesa.
- Istripu-motak.
- Zaurituaren lehen mailako ebaluazioa.
- Lehen laguntza.
- Sorospena.
- Larrialdi-egoerak.
- Larrialdi- eta ebakuazio-planak.
- Larrialdietako jarduerarako informazio osagarria.

3. Industria grafikoaren berariazko arriskuak

- Industria grafikoko ingurumen-jardunbide egokiak.
- Erabilitako materialen baliabideak.
- Sortzen diren hondakinak.
- Ingurumenean eragina duten ekintzak.
- Baliabideen kudeaketa.
- Kutsaduraren eta hondakinen kudeaketa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0241 Arte grafikoetako faseak eta prozesuak eta UF0242 Kalitatea prozesu grafikoetan gaindituak izan behar ditu.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Inprimaketa digitala.